

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

224/220 Foru Agindua maiatzaren 22koa, Batasunaren barruko eragiketen aitorten laburpenaren 349 eredia eta haren diseinu logikoak eta hura aurkezteko tokia, modua eta epea onesten dituen

Urriaren 13ko 592/2011 Foru Aginduaren bidez, zeinak maiatzaren 19ko 318/2010 Foru Agindua aldatu baitzuen, eta urtarrilaren 29ko 62/2014 Foru Aginduaren bidez, Batasunaren barruko eragiketen aitorten laburpenaren 349 eredia eta haren diseinu fisiko eta logikoak onetsi ziren, bai eta eredia Internet bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ere.

2006/112/EE Zuzentaraua aldatzen duen Kontseiluaren 2018ko abenduaren 4ko 2018/1910 (EB) Zuzentaruaren transposizioak, balio erantsiaren gaineko zergaren araubideko arau jakin batzuen harmonizazioari eta sinplifikazioari dagokienez, estatu kideen arteko trukeak ezartzean, eredu horretan aldaketak sartzea eskatzen du.

Kontseiluaren 2018ko abenduaren 4ko 2018/1910 (EB) Zuzentaruak araubidea aldatu du, kontsignan dauden ondasunak saltzeko akordioen esparruan egindako ondasun transferentziei aplikatu beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako. Hau da, salgaiak mugaz haraindi saltzeko enpresaburuaren edo profesionalen artean egindako akordioak. Akordio horietan, enpresaburu (saltzailea) batek estatu kide batetik bestera bidaltzen ditu ondasunak, Europar Batasunaren barruan, helmugako estatu kidean biltegituta gera daitezen, beste enpresaburu edo profesional batek (bezeroa) bere beharren arabera eskuratu ahal izan ditzan ondoren.

Eragiketa horiek errazteko eta akordio horiek sinatzen dituzten enpresaburuaren eta profesionalen administrazio kargak murrizteko, ezartzen da ezen, kontsignan dauden ondasunak saltzeko akordio baten esparruan egindako ondasun entregean ondorioz, baldintza jakin batzuk betetzen direnean, hornitzaileek ondasunak Batasunaren barruan entregatuko dituztela, zeinak salbuetsita egongo baitira abiaburuko estatu kidean, eta bezeroek ondasunak Batasunaren barruan eskuratuko dituztela helmugako estatu kidean.

Kontsignan dauden ondasunak saltzeko akordioetatik eratorritako sinplifikazio neurriak behar bezala aplikatzen direla bermatzeko, ezartzen da haietan parte hartzen duten enpresaburuak eta profesionalak eragiketa horiei buruzko erregistro liburu espezifikoak eraman behar dituztela. Eragiketarako erregistro berrietan eramatea eta jasota geratzea betekizun formal gisa ez ezik, betekizun substantibo gisa ere taxutzen da, hura betetzea beharrezkoa izango baita sinplifikazioa aplikatzeko.

Bestalde, zerga arautzen duen zuzentaruak ezarri du ondasunak beste estatu kide batera igortzen edo garraiatzen dituen saltzaileak, kontsignan dauden ondasunak saltzeko akordio baten esparruan, Batasunaren barruko eragiketen aitorten laburtua aurkeztu behar duela, 349 ereduaren bidez egina. Saltzaileak ondasunak beste estatu kide batera igorri edo garraiatzeko, kontsignan dauden ondasunak saltzeko akordio baten esparruan, Batasunaren barruko eragiketen aitorten laburtua aurkeztu behar du, eta hori ahalbidetzeko, foru agindu honek sartu beharreko aldaketak sartzen ditu 349 ereduan.

Bukatzeko, foru agindu honek ezabatu egiten du, 2020ko eta hurrengoetako aitortenetarako, urtean aurkeztu beharreko epea.

Zeharkako Zergen Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Onestea 349 eredia

1. Onespina ematen zaio "Batasunaren barruko eragiketen aitorpen laburpena" izeneko 349 ereduari, zeina foru agindu honen I. eranskin gisa baitoa.

2. Onespina ematen zaie, behar bezala balidatutako fitxategi baten bidez aurkeztuz gero, 349 eredian eman beharreko informazioa jasotzen duten fitxategiek bete beharreko diseinu logikoei, foru agindu honen II. eranskinean jasotako parametroei jarraituz.

2. artikulua. Aitorpen laburpena aurkeztera behartuta daudenak

Eragiketa hauetatik edozein egiten duten enpresaburu eta profesionalak egongo dira behartuta Batasunaren barruko eragiketen laburpenaren 349 eredia aurkeztera:

a) Beste estatu kide batera egiten diren ondasun entregak, baldin eta salbuetsita badaude Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 25. artikuluko lehen, bigarren eta hirugarren apartatuetan xedatutakoari jarraituz (hemendik aurrera Zergaren Foru Araua).

Eragiketa horietan sartuko dira Zergaren Arauaren 9. artikuluko 3 zenbakian jasotako ondasunen transferentziak eta, bereziki, Zergaren Arauaren 27. artikuluko 12 zenbakian xedatutakoaren arabera inportaziotik salbuetsita egon diren ondasunen ondorengo entregak.

Letra honetan aipatzen diren ondasun entregetatik kanpo geratuko dira honako hauek:

1. Zergaren Arauaren 5. artikuluko Bat apartatuko e) letrako pertsonak noizean behin egiten dituzten entregen garraibide berriak xede dituztenak.

2. Zergaren subjektu pasiboek egindakoak Europar Batasuneko beste estatu kideren batean zerga horretarako identifikazio zenbakirik esleituta ez duten hartzaileentzat.

b) Batasunaren barruko ondasun eskurapenak, zergari lotuak eta zerga aplikatuko den lurraldean zerga horretarako identifikazio zenbakia duten pertsonak edo entitateek eginak.

Eragiketa horien barruan sartuko dira beste estatu kide batetik egindako eta Zergaren Arauaren 16. artikulua 2 zenbakiak aipatutako ondasun eskualdaketen eragiketak, eta, zehazki, alde aurretik beste estatu kide batean inportatu diren ondasunen Batasunaren barruko eskurapenak, baldin eta inportazio hori zergatik salbuetsita egon bada Zergaren Arauaren 27. artikulua 12. apartatuan xedatutakoen baldintza berdintsuetan.

c) Batasunaren barruan emaniko zerbitzuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegiaren 79. artikuluan jasoriko baldintzetan.

d) Batasunaren barruko zerbitzu eskurapenak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegiaren 79. artikuluan jasoriko baldintzetan.

e) Zergaren Arauaren 26. artikulua Hiru apartatuan aipatzen diren Batasunaren barruko ondasun eskurapenen osteko ondasun entregak, Espainiako Zerga Administrazioak balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako esleitu duen identifikazio zenbakia erabiliz beste estatu kide batek eginak.

f) Kontsignan dauden ondasunak saltzeko akordioen esparruan, zerga aplikatzen den lurraldetik beste estatu kide batera igortzen edo garraiatzen diren ondasunen transferentziak.

3. artikulua. 349 eredia aurkezteko moduak

Jarraian zehaztuko diren arauekin bat etorritik aurkeztuko da Batasunaren barruko eragiketen laburpen aitorpena:

1. Foru agindu honen 7. eta 8. artikuluetan ezarritako baldintzen eta prozeduraren arabera, bide telematikoz, Interneten bidez, aurkeztu beharko dira hauexei dagozkien aitorpenak:

a) Pertsona fisiko enpresaburu edo profesionalak, sozietate zibilak, ondasun erkidegoak eta jabeen erkidegoak, aurreko ekitaldian 15 erregistro baino gehiagoko urteko laburpen edo informazio aitortpenen bat aurkeztu badute, edo abian den urtean 15 erregistro baino gehiagoko urteko laburpen edo informazio aitortpenen bat aurkeztu badute.

b) Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak diren pertsona juridiko eta erakundeak.

Halaber, hirugarrenen zerga aitortpenak aurkezteko baimena duten profesionalek aurkeztu behar dute 349 eredu bide telematikoz, Interneten bidez, baldin eta altan badaude Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren mendeko Baimenen Erregistroan, apirilaren 10eko 50/2001 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorritik.

2. Aurreko 1 zerbakiaren sartuta ez dauden zergapekoei dagozkien aitortpenak honako bitarteko hauetako baten bidez aurkeztu beharko dira, zergapekoaren aukeran:

a) Inprimakian, baldin eta aitortpenak ez badauzka 15 erregistro baino gehiago. Kasu horretan, aitortpena aurkeztu ahalko da nola foru agindu honen 1. artikuluan onetsitako 349 ereduari loturiko inprimakian hala Arabako Foru Aldundiak garatutako laguntza programak sorturiko inprimakian.

b) Zuzenean ordenagailuz irakurtzeko moduko euskarrian, baldin eta aitortpenak ez badauzka 15 erregistro baino gehiago. Aitortpena aurkeztuko da foru agindu honen 5. eta 6. artikuluetan ezarritako baldintza eta prozedurekin bat etorritik.

c) Bide telematikoz, Interneten bidez, foru agindu honen 7. eta 8. artikuluetan ezarritako baldintzen eta prozeduraren arabera.

Zuzenean ordenagailuz irakurtzeko moduko euskarriak bat etorriko dira foru agindu honen II. eranskinean ezarritako ezaugarriekin.

4. artikulua. Inprimakian aurkeztuz gero 349 eredu, non aurkeztu behar den eta zer prozedurari jarraitu behar zaion

Aitortpena honela aurkeztuko da, nola foru agindu honen I. eranskinean onetsitako 349 ereduari loturiko inprimakian hala Arabako Foru Aldundiak garatutako laguntza programak sorturikoan:

1. Zuzenean Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren bulegoetan.

Aitortpenak bi aletan aurkezten badira, interesdunari kopia zigilatua itzuliko zaio, edo, hala badagokio, aitortpena aurkeztu izana egiaztatzen duen eginbidea.

2. Posta arrunt edo ziurtatu bidez, aitortpenaren jatorrizko alea edo hura jasotzen duen paper inprimatua barruan dela.

Aitortpena aurkeztu izana egiaztatzen duen eginbidea lortzeko, beharrezkoa izango da aitortpena zuzenean aurkeztea Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailean.

Beharrezkoa izango da eranstea Arabako Foru Aldundiak emaniko identifikazio etiketa, inprimakian horretarako gordetako tokian.

5. artikulua. Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkeztuz gero 349 eredu, non aurkeztu behar den eta zer prozedurari jarraitu behar zaion

1. Zergapekoak edo aitortzaileak 349 ereduaren laburpen orriaren bi aleak, administrazioarentzat dena eta interesdunarentzat dena, aurkeztu beharko ditu Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailean, bietan ere, dagokion lekuan, Arabako Foru Ogasunak emandako identifikazio etiketa itsatsita.

Gainera, bi aleek behar bezala sinatuta egon beharko dute, eta behar diren lekuetan adierazita sinatzailea nor den eta laburpen orriaren eskatzen diren gainerako datuak.

Horretarako, berdin balioko dute Arabako Foru Ogasunak eginiko laguntza programak sorturiko orri-laburpenek edo karatulek.

Behin bulego hartzaileak haiek sinatu ondoren, aurkeztu den 349 ereduaren orri-laburpenaren "interesdunarentzako alea" jasoko du aitortzaileak eta aitortpena aurkeztu izanaren frogagiri gisa balioko dio.

2. Behin-behinean jasotzat joko dira zuzenean ordenagailuz irakurtzeko moduko euskarriak, haien prozesu eta emaitzak jakin arte, eta jasogabetzat joko dira ez badatoz bat foru agindu honetan ezarritako diseinuarekin eta gainerako zehaztasunekin.

6. artikulua. Zuzenean ordenagailuz irakurtzeko moduko euskarrien identifikazioa

Zuzenean ordenagailuz irakurtzeko moduko euskarriari etiketa itsatsi behar zaio kanpoaldean, eta han jarraian azalduko diren datuak idatzi behar dira, hemen ageri diren hurrenkera berean:

- a) Arabako Foru Ogasuna.
- b) Ekitaldia.
- c) Aitortpena aurkezteko ereduak: 349.
- d) Aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).
- e) Aitortzailearen abizenak eta izena edo sozietatearen izena.
- f) Harremanetarako pertsonaren abizenak eta izena.
- g) Pertsona horren telefonoa eta luzapena.
- h) Erregistro kopurua, guztira.

Datu horiek jasotzeko, nahikoa izango da haietako bakoitza adieraztea, aurreko zerrenda horren arabera dagokion letra aurretik jarrita.

7. artikulua. 349 ereduaren aitortpenak modu telematikoan, Interneten bidez, aurkezteko baldintza orokorrak

1. Aitortzaileak berak edo hirugarren pertsonen ordezkartzan jarduteko baimena daukan profesional batek aurkez ditzakete 349 ereduak modu telematikoan, Interneten bidez. Profesional hori alta emanda egongo da Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren menpeko Baimenen Erregistroan, apirilaren 10eko 50/2001 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik (hemendik aurrera "profesionala").

2. Baldintza hauek bete beharko dira 349 ereduaren aitortpenak modu telematikoz, Interneten bidez, aurkezteko:

a) Aitortzaileak identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) izan beharko du eta Arabako Foru Ogasuneko Zergadunen Erroldan izena emanda egon beharko da aitortpena egin aurretik.

b) Aitortzaileak edo "profesionalak" "aldundidigitala"ren zerbitzuetara sartzeko modua izan beharko du erabiltzaile gisa, urtarrilaren 26ko 2/2010 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik.

c) Aitortzaileak edo "profesionalak" helarazi behar den aitortpenaren fitxategia lortu beharko du, 349 ereduari dagozkion aitortpenak telematikoki Interneten bidez aurkezteko. Horretarako, Arabako Foru Aldundiak eginiko laguntza programa edo formatu berdineko fitxategi bat lortzen duen beste programaren bat erabili ahaliko du.

Fitxategi horren edukia foru agindu honen II. eranskinean ezarritako 0, 1 eta 2 motako diseinuei lotu behar zaie.

3. Telematikoki aurkeztutako aitortpen batean akats formalik egonez gero, horren berri emango zaio aitortzaileari edo "profesionalari" bide bera erabiliz: mezuak bidaliko zaizkio akatsak konpon ditzan.

8. artikulua. 349 ereduaren aitortzenak modu telematikoan, Interneten bidez, aurkezteko prozedura

Hona hemen 349 ereduaren aitortzenak modu telematikoan, Interneten bidez, aurkezteko prozedura:

1. Aitortzailea edo "profesionala" Arabako Foru Aldundiaren www.araba.eus helbide elektronikoan sartuko da.

2. Ondoren, "aldundidigitalean" identifikatuko da ziurtagiri elektroniko aitortu baten bidez, edo bere "erabiltzailea eta sarbide gakoa" erabilia.

3. Behar bezala identifikatu ondoren, hauexek hautatuko dira:

a) Aitortzaileak berak aurkezteko: "Aitortzenak" atala eta ondoren "Fitxategiak bidali"

b) Profesionalak aurkezteko: "Zerga ereduak bidali" atala eta ondoren "Fitxategiak bidali"

4. Aurreko apartatuko a) eta b) bi kasuetan, 349 ereduak eta aukeratutako ekitaldiak bat etorri behar dute 349 ereduarekin eta fitxategiaren ekitaldiarekin.

5. Erregistro zenbakien eremuan, fitxategiak jasotzen duen erregistro kopurua adieraziko da.

6. Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari hautatutako fitxategia helaraziko zaio.

7. Transmisioa onartzen bada, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak hartu izanaren agiria sortuko du, non erregistro zenbakia eta aurkeztu zeneko data eta ordua jasoko baitira, eta bidalitako fitxategia hartu izanaren frogagiri gisa inprimatu ahalko da.

8. Baldin transmisioak errorea sorrarazten badu, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak jakinarazi egingo dio aitortzaileari edo "profesionalari" zergatik eman zaion ezezkoa hark aurkeztutakoari. Atzera bota den fitxategia berriz ere helarazi ahalko da bide telematikoz, behin erroreak konpondu ondoren, eta bide telematikoz bidalirik fitxategia hartu izanaren frogariria inprimatu ahalko da.

9. artikulua. 349 ereduak aurkezteko epea

1. Oro har, laburpen aitortzenak hilabete natural bakoitzean eginiko eragiketak jasoko ditu, eta hileko aldiaren hurrengo hilaren lehenengo hogeita bost egun naturaletan aurkeztu beharko da, salbu eta uztailari dagokiona, zeina abuztuan eta iraileko lehen hamar egun naturaletan aurkeztu ahal izango baita, eta abenduari dagokiona, berriz, urtarrileko lehen hogeita hamar egun naturaletan aurkeztu beharko da.

2. Erreferentziako hiruhilekoan eta aurreko lau hiruhileko naturaletako bakoitzean, laburpen aitortzen jaso behar diren ondasunen entregean eta zerbitzu emateen guztizko zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa ez bada, balio erantsiaren gaineko zerga izan ezik, laburpen aitortzen aurkeztu beharko da kasuan kasuko hiruhilekoaren ondorengo hilabetearen lehenengo hogeita-bost egun naturaletan, salbu eta urtearen azkeneko hiruhilekoarena; hura urtarrileko lehenengo hogeita hamar egun naturaletan aurkeztu beharko da.

Hiruhileko natural bakoitza osatzen duten hilabeteetarik edozeinen bukaeran, aurreko paragrafoan aipatutako zenbatekoa gainditzen bada, laburpen aitortzen bat aurkeztu beharko da hiruhileko natural horretatik aurrerako hilabeterako edo hilabeteetarako, hurrengo lehenengo hogeitabost egun naturaletan, irizpide honen arabera:

a) Artikulu honetako 2. apartatuko lehenengo paragrafoan aipatutako zenbatekoa gainditzen bada, hiruhileko naturalaren lehenengo hilabetearen hileko aitortzen bat aurkeztu beharko da, eta hilabete horretan eginiko eragiketak jaso beharko dira.

b) Artikulu honetako 2. apartatuko lehenengo paragrafoan aipatutako zenbatekoa gainditzen bada, hiruhileko naturalaren bigarren hilabetearen hileko aitortzen bat aurkeztu beharko da, eta hiruhilekoaren lehenengo bi hilabeteetako eragiketak jaso beharko dira; horrez gain, marka bat jarriko da adierazteko hiruhileko moztua dela.

Xedapen indargabetzailea

Foru agindu hau indarrean sartzen denean, indarrik gabe geldituko da maiatzaren 19ko 318/2010 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baitira Batasunaren barruko eragiketen aitortpen laburpenaren 349 eredia eta haren diseinu fisiko eta logikoak, eta ezartzen baitira eredia telematikoki Internet bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura, baina ez da indarrik gabe geldituko bederatzigarren apartatuko Hiru zenbakian xedatutakoa, Batasunaren barruko 2019ko urteko eragiketen aitortpen laburpenei aplikatuko baitzaie.

Azken xedapena

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean, eta aplikagarri izango zaie, lehen aldiz, 2020ko martxoaren 1etik aurrera aurkeztu beharreko aitortpenei.


Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 29a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua


ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Batasunaren barruko eragiketak biltzen dituen aitortpena Declaración recapitulativa de operaciones intracomunitarias</p>	<p>349</p>
<p>Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sails</p>	<p>Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos</p>	
<p>1 IDENTIFIKAZIOA ■ IDENTIFICACIÓN</p> <p>IDENTIFIKAZIO TXARTELA JARTZEKO LEKUA ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA IDENTIFICATIVA</p>	<p>2 EKITALDIA ETA EPEALDIA ■ EJERCICIO Y PERÍODO</p> <p>EKITALDIA ■ EJERCICIO [][][][]</p> <p>EPEALDIA ■ PERÍODO [] M [] T</p> <p>Jar ezazu "X" hileroko aitortpena bada, hiruhilekoko lehen bi hilabetei dagozkien eragiketekin. Consigne una "X" si se trata de una declaración mensual con operaciones correspondientes a los dos primeros meses del trimestre <input type="checkbox"/></p>	
<p>3 ORDEZKARIAREN IFZ ■ NIF REPRESENTANTE</p>	<p>4 Aitortpenaren identifikazio zk. N.º identificativo declaración</p> <p>349</p>	
<p>5 HARREMANETARAKO PERTSONA ■ PERSONA DE CONTACTO</p> <p>Deiturak eta izena ■ Apellidos y Nombre</p> <p>Telefona ■ Teléfono</p>		
<p>6 AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA ■ DECLARACIÓN COMPLEMENTARIA O SUSTITUTIVA</p> <p>Markatu "X" batekin "Aitortpen osagarria" laukia aitortpen hau aurkeztearen helburua hau baldin bada: lehenago aurkeztutako ekitaldi eta epealdi bereko aitortpen batean jaso behar zireb baina jaso gabe gelditu ziren eragiketak aitortzea.</p> <p>Markatu "X" batekin "Ordezko aitortpena" laukia, horrelako aitortpena dela adierazteko, aitortpen ahu aurkeztearen helburua hau baldin: datu okerrak adierazi ziren lehenagoko aitortpen bat, ekitaldi eta epealdi berekoa, erabat baliogabetzea eta ordeztzea.</p> <p>Aitortpenaren osagarria Declaración complementaria <input type="checkbox"/></p> <p>Ordezko aitortpena Declaración sustitutiva <input type="checkbox"/></p> <p>Aurreko aitortpenaren identifikazio zk. N.º identificativo de la declaración anterior</p> <p>349</p> <p>Si la presentación de esta declaración tiene por objeto incluir operaciones que, debiendo haber figurado en otra declaración del mismo ejercicio presentada anteriormente, hubiera sido completamente omitidas en la misma marque con una "X" la casilla "Declaración complementaria"</p> <p>Cuando la presentación de esta declaración tenga por objeto anular y sustituir completamente otra declaración anterior del mismo ejercicio y período en la cual se hubieran consignado datos inexactos o erróneos, indique su carácter de declaración sustitutiva marcando con una "X" la casilla correspondiente</p>		
<p>7 AITORPENAREN LABURPENA ■ RESUMEN DECLARACIÓN</p> <p>Batasunaren barruko eragileen kopurua, guztira Número total de operadores intracomunitarios 01 [][][][]</p> <p>Batasunaren barruko eragiketaren zenbatekoa Importe de las operaciones intracomunitarias 02 [][][][][][][][]</p> <p>Zuzenketak dituzten Batasunaren barruko eragileen kopurua, guztira Número total de operadores intracomunitarios con rectificaciones 03 [][][][]</p> <p>Zuzenketen zenbatekoa Importe de las rectificaciones 04 [][][][][][][][]</p>		
<p>8 Data eta sinadura ■ Fecha y firma</p>	<p>9 Sarrera erregistroko zigilua ■ Sello registro de entrada</p>	
<p>Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (Datuak babesteko erregelamendu orokorra) jasotakoa betetzeko xedearekin, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko Zergadunen Fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamendua zergak kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko egiten dira. Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.</p> <p>Erregelamendu horretan aitortzen diren datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezereztzeko, hasien aurka egiteko eta datuak mugatzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Dulegoan (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz, Araba). Informazio gehiago: http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua</p> <p>Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (Reglamento General de Protección de Datos), le informamos que los datos que nos facilita van a ser incluidos en el Fichero de Contribuyentes titularidad de la Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión, inspección y recaudación de los diferentes tributos. Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el citado Reglamento dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, (Plaza de la Provincia, 5, 01001 Vitoria-Gasteiz, Álava). Para más información: http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado</p>		
<p>PSN ■ PVP: 0,06€</p>		

RE 20/177

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Erkiego barruko eragiketak Europar Batasunarekiko eragiketen laburpena Batasunaren barruko eragiketen zerrenda (C gakoa duten eragiketa kontsignatuak izan ezik)</p> <p>Operaciones intracomunitarias Resumen operaciones con la Unión Europea Relación de operaciones intracomunitarias (excepto operaciones en consigna con clave C)</p>	<p>349</p>
---	--	-------------------

Ogasun, Finantza
eta Aurrekontu SailaDepartamento de Hacienda,
Finanzas y Presupuestos


IDENTIFIKAZIOA IDENTIFICACIÓN	<p>IDENTIFIKAZIO TXARTELA JARTZEKO LEKUA ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA IDENTIFICATIVA</p>	<p>EKITALDIA ■ EJERCICIO <input type="text"/></p> <p>EPEALDIA ■ PERÍODO <input type="text"/> M <input type="text"/> T</p> <p>ORRI ZK. ■ HOJA N.º <input type="text"/> kp. de <input type="text"/></p>
----------------------------------	---	--

Batasunaren barruko eragiketen zerrenda (C gakoa duten eragiketa kontsignatuak izan ezik)
Relación de operaciones intracomunitarias (excepto operaciones en consigna con clave C)

Zk. N.º	Herr. kodea Cód. país	EBko IFZ NIF comunitario	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o Razón Social	Gakoa Clave	Zerga oinarria Base imponible
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					
11					
12					
13					
14					
15					
16					
17					
18					
19					
20					
ORRI HONETAKOA, GUZTIRA					
TOTAL POR HOJA					

RE 20/178

PSN ■ PVP: 0,06€

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Erkiego barruko eragiketak Europar Batasunarekiko eragiketen laburpena Aurreko epealdien zuzenketak (C gakoa duten eragiketa kontsignatuak izan ezik)</p> <p>Operaciones intracomunitarias Resumen operaciones con la Unión Europea Rectificaciones de períodos anteriores (excepto operaciones en consigna con clave C)</p>	349
--	--	-----

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila


Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

IDENTIFIKAZIOA IDENTIFICACIÓN	<p>IDENTIFIKAZIO TXARTELA JARTZEKO LEKUA ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA IDENTIFICATIVA</p>	<p>EKITALDIA ■ EJERCICIO <input type="text"/></p> <p>EPEALDIA ■ PERÍODO <input type="text"/> M <input type="text"/> T</p> <p>ORRI ZK. ■ HOJA N.º <input type="text"/> kp. de <input type="text"/></p>
----------------------------------	---	--

Aurreko epealdien zuzenketak (C gakoa duten eragiketa kontsignatuak izan ezik) Rectificaciones de períodos anteriores (excepto operaciones en consigna con clave C)				
1	Herr. kodea Cód. país EBko IFZ NIF comunitario	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o Razón social	Gakoa Clave	
	Ekitaldia Ejercicio	Epealdia Período	Zuzendutako zerga oinarria Base imponible rectificada	Lehen aitortutako zerga oinarria Base imponible declarada anteriormente
2	Herr. kodea Cód. país EBko IFZ NIF comunitario	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o Razón social	Gakoa Clave	
	Ekitaldia Ejercicio	Epealdia Período	Zuzendutako zerga oinarria Base imponible rectificada	Lehen aitortutako zerga oinarria Base imponible declarada anteriormente
3	Herr. kodea Cód. país EBko IFZ NIF comunitario	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o Razón social	Gakoa Clave	
	Ekitaldia Ejercicio	Epealdia Período	Zuzendutako zerga oinarria Base imponible rectificada	Lehen aitortutako zerga oinarria Base imponible declarada anteriormente
4	Herr. kodea Cód. país EBko IFZ NIF comunitario	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o Razón social	Gakoa Clave	
	Ekitaldia Ejercicio	Epealdia Período	Zuzendutako zerga oinarria Base imponible rectificada	Lehen aitortutako zerga oinarria Base imponible declarada anteriormente
5	Herr. kodea Cód. país EBko IFZ NIF comunitario	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o Razón social	Gakoa Clave	
	Ekitaldia Ejercicio	Epealdia Período	Zuzendutako zerga oinarria Base imponible rectificada	Lehen aitortutako zerga oinarria Base imponible declarada anteriormente
6	Herr. kodea Cód. país EBko IFZ NIF comunitario	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o Razón social	Gakoa Clave	
	Ekitaldia Ejercicio	Epealdia Período	Zuzendutako zerga oinarria Base imponible rectificada	Lehen aitortutako zerga oinarria Base imponible declarada anteriormente
ORRI HONETAKOA, GUZTIRA TOTAL POR HOJA			Zuzendutako zerga oinarria Base imponible rectificada	

RE. 20/179

PSN ■ PVP: 0,06€

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Erkiego barruko eragiketak Europar Batasunarekiko eragiketen laburpena C gakoa duten erkidego barruko eragiketa kontsignatuen zerrenda</p> <p>Operaciones intracomunitarias Resumen operaciones con la Unión Europea Relación de operaciones intracomunitarias en consigna con clave C</p>	349
--	--	-----

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos


IDENTIFIKAZIOA IDENTIFICACIÓN	<p>IDENTIFIKAZIO TXARTELA JARTZEKO LEKUA ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA IDENTIFICATIVA</p>	<p>EKITALDIA ■ EJERCICIO <input type="text"/></p> <p>EPEALDIA ■ PERÍODO <input type="text"/> M <input type="text"/> T</p> <p>ORRI ZK. ■ HOJA N.º <input type="text"/> kp. ■ de <input type="text"/></p>
-------------------------------	---	---

C gakoa duten erkidego barruko eragiketa kontsignatuen zerrenda
Relación de operaciones intracomunitarias en consigna con clave C

Zk. N.º	Herr. kodea Cód. país	EBko IFZ NIF comunitario	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o Razón Social	Zerga oinarria Base imponible
1	Ordezko subjektu pasiboaren datuak ■ Datos del sujeto pasivo sustituto			
2	Ordezko subjektu pasiboaren datuak ■ Datos del sujeto pasivo sustituto			
3	Ordezko subjektu pasiboaren datuak ■ Datos del sujeto pasivo sustituto			
4	Ordezko subjektu pasiboaren datuak ■ Datos del sujeto pasivo sustituto			
5	Ordezko subjektu pasiboaren datuak ■ Datos del sujeto pasivo sustituto			
6	Ordezko subjektu pasiboaren datuak ■ Datos del sujeto pasivo sustituto			
7	Ordezko subjektu pasiboaren datuak ■ Datos del sujeto pasivo sustituto			
ORRI HONETAKOA, GUZTIRA				
TOTAL POR HOJA				

PSN ■ PVP: 0,06€

RE. 20/190

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p style="text-align: center;">Erkiego barruko eragiketak Europar Batasunarekiko eragiketen laburpena C gakoan duten erkidego barruko eragiketaren kontsignatuen aurreko aldien zuzenketak</p> <p style="text-align: center;">Operaciones intracomunitarias Resumen operaciones con la Unión Europea Rectificaciones de periodos anteriores de operaciones intracomunitarias en consigna con clave C</p>	349
--	---	-----

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

IDENTIFIKAZIOA IDENTIFICACIÓN	IDENTIFIKAZIO TXARTELA JARTZEKO LEKUA ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA IDENTIFICATIVA	EKITALDIA ■ EJERCICIO <input style="width: 40px;" type="text"/> EPEALDIA ■ PERÍODO <table border="1" style="display: inline-table; border-collapse: collapse; text-align: center;"> <tr><td style="width: 20px; height: 20px;"> </td><td style="width: 20px; height: 20px;">M</td></tr> <tr><td style="width: 20px; height: 20px;"> </td><td style="width: 20px; height: 20px;">T</td></tr> </table> ORRI ZK. ■ HOJA N.º <input style="width: 40px;" type="text"/> kp. ■ de		M		T
	M					
	T					

C gakoan duten erkidego barruko eragiketa kontsignatuen aurreko aldien zuzenketak
 Rectificaciones de periodos anteriores de operaciones intracomunitarias en consigna con clave C

1	Herr. kodea Cód. país	EBko IFZ NIF comunitario	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o Razón Social	Ekitaldia Ejercicio	Epealdia Periodo
Zuzendutako zerga oinarria ■ Base imponible rectificada		Lehen aitortutako zerga oinarria ■ Base imponible declarada anteriormente			
Ordezko subjektu pasiboaren datuak ■ Datos del sujeto pasivo sustituto					
Herr. kodea Cód. país		EBko IFZ NIF comunitario	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o Razón Social		

2	Herr. kodea Cód. país	EBko IFZ NIF comunitario	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o Razón Social	Ekitaldia Ejercicio	Epealdia Periodo
Zuzendutako zerga oinarria ■ Base imponible rectificada		Lehen aitortutako zerga oinarria ■ Base imponible declarada anteriormente			
Ordezko subjektu pasiboaren datuak ■ Datos del sujeto pasivo sustituto					
Herr. kodea Cód. país		EBko IFZ NIF comunitario	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o Razón Social		

3	Herr. kodea Cód. país	EBko IFZ NIF comunitario	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o Razón Social	Ekitaldia Ejercicio	Epealdia Periodo
Zuzendutako zerga oinarria ■ Base imponible rectificada		Lehen aitortutako zerga oinarria ■ Base imponible declarada anteriormente			
Ordezko subjektu pasiboaren datuak ■ Datos del sujeto pasivo sustituto					
Herr. kodea Cód. país		EBko IFZ NIF comunitario	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o Razón Social		


4	Herr. kodea Cód. país	EBko IFZ NIF comunitario	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o Razón Social	Ekitaldia Ejercicio	Epealdia Periodo
Zuzendutako zerga oinarria ■ Base imponible rectificada		Lehen aitortutako zerga oinarria ■ Base imponible declarada anteriormente			
Ordezko subjektu pasiboaren datuak ■ Datos del sujeto pasivo sustituto					
Herr. kodea Cód. país		EBko IFZ NIF comunitario	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o Razón Social		

ORRI HONETAKOA, GUZTIRA ■ TOTAL POR HOJA

Zuzendutako zerga oinarria ■ Base imponible rectificada

PSN ■ PVP: 0,06€

RE: 20/181

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Europar batasuneko subjektu pasiboekin egindako eragiketak biltzen dituen laburpen aitortpena</p> <p>Declaración recapitulativa de operaciones con sujetos pasivos de la UE</p>	<p>349</p>
--	--	-------------------

Ogasun, Finantza
eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda,
Finanzas y Presupuestos

Jarraibideak

Honako eragiketak egin dituzten subjektu pasiboek erabili beharreko ereduak: Europar Batasunaren barruan ondasunak entregatu edo eskuratu, ondasunak kontsignan saltzeko akordioan esparruan egindako ondasun transferentziak egin, hiru aldeko eragiketen esparruan egindako eskuratze salbuetsien ostean beste estatu kide batzuei entregak egin eta Batasunaren barruan zerbitzuak eman eta jaso, horiek denak Balio erantsiaren gaineko zergaren arautegiko 79. artikuluan jasotakoaren arabera (apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretua)

Laburpen orria

1. IDENTIFIKAZIOA

Identifikazio etiketa itsatsi behar da ereduaren berariaz ezarritako eremuan, bat ala bakoitzean.

2. EKITALDIA, ALDIA

Ekitaldia: aitortpena zein ekitaldira dagokion zehaztuko da.

Aldia: aitortpena zein aldira dagokion zehaztuko da, dela hilekoa (HB), dela hiruhilekoa (HIB).

X bat jarri beharko duzu horretarako prestatutako laukian, hiruhilekoaren lehen bi hilabetei dagozkien eragiketak jasotzen dituen hileko aitortpena bada.

4. AITORTPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA

Jarri beharreko identifikazio zenbakia sekuentziala izan behar da, eta horren lehenengo hiru digituak 349 kodeari dagozkionak izan behar dira. Adib.: 349 zenbaki sekuentziala.

6. AITORTPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKO AITORTPENA

— **Aitortpen osagarria:** "X" batez markatuko da "aitortpen osagarria" laukia, aitortpena aurkeztearen helburua bada lehenago aurkezturiko ekitaldi/aldi bereko beste aitortpen batean agertu behar ziren baina hartan jarri gabe geratu ziren erregistroak sartzea. Aitortpen osagarria aurretik aitortu gabe utzitako eragiketak baino ez dira sartu behar.

— **Ordezko aitortpena:** "X" batez markatuko da "ordezko aitortpena" laukia, aitortpena aurkeztearen helburua bada lehenago aurkeztutako beste aitortpen bat oso-osorik baliogabetu eta ordezteak, hartan adierazitako datuak ez zirelako zehatzak edo okerrak zirelako.

Instrucciones

Modelo a utilizar por los sujetos pasivos que hayan realizado entregas o adquisiciones intracomunitarias de bienes, transferencias de bienes efectuadas en el marco de acuerdos de ventas de bienes en consigna o entregas en otros Estados miembros subsiguientes a adquisiciones intracomunitarias exentas en el marco de operaciones triangulares y aquellos que hayan realizado o recibido prestaciones intracomunitarias de servicios, todas ellas realizadas en los términos del artículo 79 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido (Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril).

Hoja resumen

1. IDENTIFICACIÓN

Adhiera la etiqueta identificativa en el espacio reservado al efecto en cada uno de los ejemplares.

2. EJERCICIO, PERÍODO

Ejercicio: se hará constar aquél al que corresponda la declaración.

Período: se hará constar aquél al que corresponda la declaración, bien sea esta mensual M, o trimestral T.

Deberá consignar una X en la casilla habilitada al efecto si se trata de una declaración mensual con operaciones correspondientes a los dos primeros meses del trimestre.

4. NÚMERO IDENTIFICATIVO DE LA DECLARACIÓN

El número identificativo que habrá de figurar será un número secuencial cuyos tres primeros dígitos se corresponderán con el código 349. Ejem: 349 número secuencial.

6. DECLARACIÓN COMPLEMENTARIA O SUSTITUTIVA

— **Declaración complementaria:** se marcará con una "X" la casilla "Declaración complementaria" cuando la presentación de la declaración tenga por objeto incluir operaciones que, debiendo haber sido incluidas en otra declaración del mismo ejercicio y período presentada con anterioridad, hubieran sido completamente omitidas en la misma. En la declaración complementaria solamente se incluirán las operaciones omitidas que motivan su presentación.

— **Declaración sustitutiva:** se marcará con una "X" la casilla "Declaración sustitutiva" cuando la presentación de la declaración tenga por objeto anular y sustituir completamente a otra declaración anterior en la cual se hubieran incluido datos inexactos o erróneos.

— **Aurreko aitortenaren identifikazio zenbakia:** osatzen edo ordezkatzatzen den aitortenaren identifikazio zenbakia jarri behar da.

7. AITORPENAREN LABURPENA

Atal honetako laukietan barruko orrietan (edo euskarrian) adierazitako datuen laburpena egin behar da, ondoren zehaztuko den bezala:

[01] laukia Batasunaren barruko operadore kopurua guztira: Barne orrietan edo ERKIDEGO BARRUKO ERAGIKETEN ZERRENDARi dagokion euskarrian zerrendatutako subjektu pasiboen kopuru osoa adierazi beharko da, bai Europar Batasunaren barruko entrega salbuetsiei dagokienez, bai inportazio salbuetsi baten ostean inportatzaileak edo haren ordezkari fiskalak Batasunaren barruan egindako ondasun entreegi dagokienez, bai hiru aldeko eragiketen esparruan Batasunaren barruko erosketa salbuetsien ondoren beste estatu kide batzuetan egindako entreegi dagokienez, bai Batasunaren barruko zergapeko eskuraketei dagokienez, bai batasunaren barruko zerbitzu ematei dagokienez, bai Batasunaren barruko zerbitzu eskurapenei edo ondasun transferentziei dagokienez, bai kontsignan dauden ondasunak saltzeko akordio baten esparruan beste estatu kide batera transferitutako ondasunen hartzaile den enpresaburuaren edo profesionalaren ondasun itzulketei eta ordezkapenei dagokienez. Erkidego barruko operadore bat erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, zerrendatuta dagoen adina aldiz zenbatuko da.

[02] laukia Batasunaren barruko eragiketen zenbatekoa: [01] laukian jasotako eragiketei dagozkien zerga oinarrien batura osoa adierazi beharko da.

[03] laukia Zuzenketak dauzkaten Batasunaren barruko operadoreen kopurua guztira: barne orrietan edo AURREKO ALDIETAKO ZUZENKETEI dagokien euskarrian zerrendatutako subjektu pasiboen kopuru osoa adierazi beharko da, bai Europar Batasunaren barruko entrega salbuetsiei dagokienez, bai inportazio salbuetsi baten ostean inportatzaileak edo haren ordezkari fiskalak Batasunaren barruan egindako ondasun entreegi dagokienez, bai hiru aldeko eragiketen esparruan Batasunaren barruko erosketa salbuetsien ondoren beste estatu kide batzuetan egindako entreegi dagokienez, bai Batasunaren barruko zergapeko eskuraketei dagokienez, bai batasunaren barruko zerbitzu ematei dagokienez, bai Batasunaren barruko zerbitzu eskurapenei edo ondasun transferentziei dagokienez, bai kontsignan dauden ondasunak saltzeko akordio baten esparruan beste estatu kide batera transferitutako ondasunen hartzaile den enpresaburuaren edo profesionalaren ondasun itzulketei eta ordezkapenei dagokienez. Erkidego barruko operadore bat erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, zerrendatuta dagoen adina aldiz zenbatuko da.

[04] laukia Zuzenketen zenbatekoa: [03] laukian "zerga oinarri zuzendua" atalean esleitutako zenbateko guztien batura kontsignatu beharko da, zehazki, aipatutako subjektu pasibo guztiei egindako zuzenketei dagozkien zenbatekoena.

